

## FRANCISCA DE ACULODI

### Sariaren VI Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren VI. Edizioaren —2018/2019 ikasturtea— Artea eta Giza Zientziak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 9 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako bi lan hauei ematea erabaki du:

Euskaraz:

### **EUSKAL ITZULTZAILEEN ESTRATEGIAK GENERO MARKAK ITZULTZEAN**

Gaztelaniaz:

### **LA CIGÜEÑA DEL SIGLO XXI**

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiek 2020ko otsailaren 14a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.es/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-vi-edizioa> web orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

**Leire Vega Barandiaran**

Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua (Letren Fakultatea)

Tutorea: Isabel Etxeberria Ramírez

## **EUSKAL ITZULTZAILEEN ESTRATEGIAK GENERO MARKAK ITZULTZEAN**

### LABURPENA:

Generoa gai ezin delikatua dugu egun; emakume edo gizon, maskulino edo femenino binomiotik haratago doan kontua da. Inoiz baino kontu handiagoarekin lantzen dugun gaia da, eta eztabaida honek pisu handia hartu du jendartean. Genero gramatikalaren auziak buruhauste handiak sor diezazkioke itzultzaileari itzuli beharreko Hizkuntza konbinaketaren arabera, hizkuntza batzuetan, euskara kasu, genero gramatikalak pisu txikia baitauka; beste hizkuntza batzuetan, aldiz, genero gramatikalak pisu handiagoa du (gaztelaniak, adibidez), eta hizkuntza konbinaketa horietan itzultzaileak hartu behar dituen erabakiak ezin garrantzitsuagoak dira.

Hori guztia dela eta, lan honen helburua, euskal itzultzaileek genero markak itzultzean erabiltzen dituzten estrategiak identifikatzea da. Horretarako, hasiera batean itzulpen ikasketen eta genero ikasketen arteko harremanaren inguruan hainbat azalpen emango ditugu bien sorreratik hasita. Harreman horren ondorio zuzen gisa, Kanadan sortutako itzulpen feministaren inguruan ere.

Jarraian, generoak itzulpengintzan duen garrantziaren inguruan hitz egingo dugu; gai gatazkatsu horri aurre egiteko asmoarekin sortutako itzulpen feministak erabiltzen zituen itzulpen-estrategiak izendatu eta azalduko ditugu hainbat adibide baliatuta. Horrenbestez, genero gramatikalaren gatazka gurera ekarri, zenbait euskal itzultzailek gai honen inguruan izandako gogoetak aurkeztuko ditugu.

Ondoren, nire ikerketa aurrera eraman ahal izateko erabili dugun metodologiaren inguruan ere jardungo dugu. Aztertu ditugun ipuinen aukeraketa egiteko aurrera eraman dugun hausnarketa esplikatu dugu, eta testuen azterketa xehe-xehe azalduko dugu: ipuin liburu bakoitzari sarreratxo bat egingo diogu, horren itzultzaile zein idazleen inguruan datu bibliografiko batzuk emanda. Jarraian, liburu bakoitzean azterketa egiteko hautatu dugun ipuinaren argumentua azalduko dugu. Azalpen horien ostean, genero markak itzultzeko garaian itzultzaileak erabili dituen estrategia ezberdinak identifikatu ditugu hainbat adibiderek, baita estrategia bakoitzaren erabilpenaren portzentajeak aipatu ere. Azkenik, azterketarekin amaitzeko, estrategia bakoitzaren erabilpenaren zergatia azalduko dugu.

Lanarekin amaitzeko, ikerketa hau egin ondoren ateratako ondorioak plazaratuko ditugu, eta atal teorikoa egin ahal izateko erabili dugun bibliografia zerrendatuko dugu.

Bibliografia horren ostean hainbat eranskin txertatu ditugu; testu bakoitzaren azterketa osoaren taulak daude bertan; lanean zehar, taula horietatik atera ditugun lagin batzuk besterik ez baititugu jarri.

Gaztelaniaz eginiko lanaren irabazlea:

**Irene Coulon Pierrugues**

Filosofiako gradua (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultatea)

Tutorea: Fernando Migura Zanguitu

## **LA CIGÜEÑA DEL SIGLO XXI**

LABURPENA:

“La cigüeña del siglo XXI” trata sobre el alquiler de mujeres como vientres gestantes. Un tema actual de verdadera emergencia política que debemos afrontar y analizar desde el feminismo. Sin embargo, “el feminismo” no es un todo homogéneo, sino un conjunto de corrientes que difieren tanto en los objetivos como en las formas de análisis. Es, precisamente, esta disparidad de posturas respecto a la gestación subrogada la que me interesaba; los retos y los diálogos “de puertas para adentro”. Se verá, pues, que cierto feminismo ha adoptado una deriva neoliberal que sirve a la lógica del mercado, primando los intereses individuales frente al principio de solidaridad de otros feminismos. El debate, en última instancia, nos obliga a pensar cuál es el mundo en el que queremos vivir y si creemos en el feminismo como torrente transformador para alcanzarlo.